

Lan honen egileak Jone Zugazaga, Helene del Pino eta Jon Cortes gara, Ibaizabal ikastolako Gizarteratzeko bigarren mailako ikasleak. Aurkeztu dugun proiektua gure arloarekin estuki loturik dago, izan ere, ikasleak garen heinean, hezkuntzan zenbait gabezia identifikatu ahal izan ditugu inklusiotasunari dagokionez. Kontziente gara bete-beteko inklusibotasuna bermatzea utopikoa dela, baina, hezkuntza sisteman antzeman ditugun gabeziei erantzun bat bilatu nahiak bideratu du eskuhartean dugun proiektua.

Proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa izango zaigu aniztasun funtzional zentsoriala, motorea eta mentala daukaten pertsonen beharrei erantzun bat bilatzea Durangaldeko hezkuntza sistemako profesionalei transmititu ahal izateko. Azpimarratzearren, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zentratuko da gure esku-hartzea, eta honen bidez prebentzio neurriak ezarri ahal izango ditugu.